

Elkar ezagutuz

- **8:30 Esnatu.** Egun horretako zaintzako begiraleak musika jarri eta haurrak iratzarriko ditu. Ondoren egitaraua ikusi eta behar duten arropa jantziko dute.
- **9:00 Gosaria.** Denak txukun-txukun jantzi eta garbitu ondoren gosaltzera joango dira. Arantzako kasuan otordu bakoitza baino ordu laurden lehenago, egun horretako talde arduradunak mahaiak prestatuko ditu.

- **10:00 Herri buelta.** Arantza eta Beintzako herriak **ezagutu** eta mugak jartzeko herrian zehar buelta bat emango dugu. Bitartean inguruari eta herriari buruzko azalpen batzuk emango dira.



- **Ezagutza jolasak.** Elkar ezagutzen jarraitu eta izenak ikasteko, jolas ezberdinak egingo ditugu.

- **13:00 Bazkaria.** Otordu bakoitzaren ondoren, talde arduradunak jangela garbitu eta txukunduko du.



- **15:00 Kamisetak tindatzeko tailerra** egingo da. Denak batera kamisetak prestatu eta gero, begirale bakoitzaren taldeak, banan-banan kamisetak tindatzen dituzte.

- Bitartean beste taldeak **hiztegiak** egiten geldituko dira. Bukatutakoan, **euskara txokoa** egingo dugu, egunero edo askotan erabiltzen diren hitzak eta esamoldeak eta baita beraiek galdetzen dituzten hitzak apuntatzeko.

- **17:00 Merienda.** Jolasen artean bokata jan eta atsedean txiki bat egingo dugu.

- **17:30 Jolasak kooperatiboak.** Elkarren artean konfiantza hartu eta taldea osatu eta talde giroa sortzen joan dadin, jolas ezberdinak egingo ditugu.



- **19:00 Dutzak eta denbora libre.** Dutzatu ondoren, tarte libre izango dute pilotan, futbolean, mahai jolasetan jolastu, herrian zehar bueltatxo bat eman edo elkarren artean hitz egiten egoteko.



- **20:00 Afaria.** Otordu guztietan bezala talde arduradun bat egonen da jangela prestatu, bildu eta garbitzeko.

- **21:30 Gaubela.** Egunean zehar aktibitate mugituak egin direnez, gauerako ekintza lasai bat aukertzen da. Kasu honetan **musika kutxa** aukeratu da.

- **23:00 Lotara.**